

BEZEROEKIKO HARREMANAK:

Gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoa da bezeroak beti ondo informatuta egotea erosten dutenaren inguruan eta dudarik izanez gero laguntza edukitzea. Hasiara batean erakunde publikoei salduko diegunez gure produktua, eta ez direnez erakunde ugari izango, laguntza oso zehatza izango da. Izan ere, erakunde pribatuei saltzen hasten garenean, jende gehiagoren laguntza beharko dugu informazio hori zehazteko.

Beti izango dugu laguntza pertsonala eskaintzeko zerbitzua gure lan orduen barruan, hau da, goizeko 9:00tatik arratsaldeko 19:00ak arte. Ordu hauen barruan bi aukera izango dira: lehenengoa, produktuarekin arazo bat izanez gero egin beharrezkoa egingo da. Kasu honetan, matxura bat bide, adibidez, teknologia honetan aditua den pertsonala joango da arazoa dagoen lekuraino konpontzen saiatzeko. Bigarrenik, bulegoetan arreta egongo da duda zehatzak argitzeko etab.

Aldi berean, gure enpresaren telefono zenbakia egongo da eskuragarri eta sare sozialetatik edozein duda argitu dezakegu ere bai.

Bestalde, kontutan izan dugu teknologia berria izanik jende asko eta askok arazoak izan ditzaketela ohitura faltagatik. Arazo hori konpontzeko, bi hilabete behin ikastaroak egingo ditugu produktuaren erabilpen orokorraren inguruan. Beharrezkoak diren gauzak denok jakiteko eta oinarritzko kontzeptuetan galduta ez egoteko. Ikastaro hauetara adibidez, ikastola publikoetako irakasleak etorriko dira. Baita, proiektua aurrera joan ahala, jabetxeetako zerbitzariak.

Bukatzeko, beharrezkoa ikusten dugu, gure proiektuak akatsik ez duela ikusteko edo akatsen bat izanez gero identifikatzeko, bi urteren buruan errebisio orokor bat egitea erabiltzen ari diren mahai guztiei. Ardura hau betetzeko pertsona talde bat osatuko genuke eta hauek beteko lukete harremana.